

Pirinioetako mendi garaienen lehen igoerak jasotzen dituen liburua argitara eman berri duen aitzakian hurbildu gara Claude Dendaletxerengana baina, bistan da, mendiaren eta naturaren inguruan asko du esateko



Izenburua: CUMBRES PIRENAICAS
Egilea: Claude Dendaletxe
Argitaletxea: Sua edizioak
Bilduma: El Mundo de los Pirineos
Orriak: 184
Prezioa: 26,00 euro

Claude Dendaletxe

Mendizale eta biologoa

«Aurkikuntza zoragarriak egin ditut Pirinioetako lehen igoerak ikertzen»

Lutxi Fourcade / Kanbo

Claude Dendaletxe, Pirinioetako mendizale amorratua izateaz gain, biologista da formakuntzaz. Luzaz, Paueko Unibertsitateko erakaslea egon da, Mendi Goreneko Ekologia Ikerketa taldea kudeatuz. Pirinio katearen aditua da, «nahiko ttipia baita, sistema osoa buruan izateko zailtasun handirik gabe». Hogei bat liburu idatzi ditu, baita ikerlan ugari kudeatu ere. Izadia xeheki aztertu ondoren, Pirinio kateari eta bere historiari buruzko lanetan murgiltzeko nahikaria du. Liburu berria argitaratu berri du Sua argitaletxean, eta, bertan, Pirinioetako gailur handien lehen igoerak zehazten ditu.

• **Beste urrats bat egin duzu Pirinioen gaindi, baina iraganari buruz aldi honetan.**

Sakondu ditut katearen hamar gailur handien lehen igoerak, eta horretaz idatziak izan ziren testuak. Kasu anitzetan, jende batzuk joan ziren, baina idatzi gabe; beraz, aipatu ditut bakarrik aztarna idatziak utzi zituzten mendizaleak.

• **Lan handia izan duzu testu horien biltzeko?**

Testu guztiak nahiko zaharrak dira, eta batzuk duela gutxi bakarrik agertu dira. Denak frantzesez edo ingelesez ziren, eta ez dut gaztelerazko edo euskarazko testurik aurkitu. Badirudi mendizale guztiak

kanpokoak zirela: frantsesak, ingelesak, errusiarrak, suitzarrak.

• **Zer interes ikusi duzu lan horretan?**

Lehendabizi, jakin behar da lehen igoerak eginak izan direla XVIII. eta XIX. mendeetan. Nahi nuen jakin zerk bultzatzen zituen jende horiek, zergatik ibiltzen ziren. Garai horretan, mendi gorak igozteak benetako markak ziren. Gaur, errazki ibiltzen gara gure mapa eta liburuekin. Aldiz, XVIII. mendean benetako abentura

zen, ez zuten deus ezagutzen. Aberatsak ziren, baina umilak. Tokiko gidak hartzen zituzten bideak erakusteko, eta nahiko desmarta bitxiak ziren, gailurretan ez baitzen aberasten!

• **Interes historikoa gehienbat, beraz?**

Testu gehienak dokumentu arraroak dira, eta interesgarria iruditzen zait testu guztiak biltzea liburu batean. Lekukotasun baten zazpi ale baizik ez ziren gelditzen munduan. Ibili behar izan dut toki

anitzetan dokumentu horien biltzeko. Ene ustez, interesgarria da testu horiek irakurraztea gaurko mendizaleei, ikus dezaten nola pasatzen zuten lehen. Adibidez, Midi d'Ossau mendira joan zen lehen mendizalea, Guillaume Delfau, ikaratu zen iritsi baino lehen, eta idazten zuen gutuna erranez beharbada ez zela itzuliko. Mendizaleek maite dituzte aurkikuntzak egitea, eta denek interesa aurkituko dute ene ustez.



Nanou Saint Lebe eta emakume

✘ Nanou Saint Lebe, Claude Dendaletxe senarra bezala, mendizale amorratua da. Bere laugarren liburua ateratu berri du. Pirinioetako hartz eta mendizale handien janaria aztertu ondoren, bi liburu plazartu ditu Sua argitaletxean. Lehena, *Piriniotako sukaldaritza* argitaratu zuen duela bi urte, eta 280 errezeptarekin zituen. Bigarrena, *Piriniotako ibiltzaileak XVIII-XIX. mendeetan* argitaratu berri du. «Liburu horrek lan handia eta ikerketa handiak galdeginduz, baina zinez lan oparoa izan da itzalean zeuden emazte batzuen ekarpena ezagutarazteko», adierazi digu. Osasuna hobetzeko egonaldiak egiteaz gain, emazte batzuek garrantzi handia hartu dute Pirinioetako historian, eta zerbait garrantzitsua egin edo eginarazi dute; hala nola, Montijokeko Eugeniak edo Espainiako erregina Neoburgoeko Marianak.

Bestalde, liburuak emakumeen lehen igoerak aztertzen ditu, eta emakumeen rola Pirinioetako historian aztertzen du. Hala ere, emakumeak gutxi aztertzen dira, eta emakumeen eragina Pirinioetako historian aztertzen da. Hala ere, emakumeen eragina Pirinioetako historian aztertzen da. Hala ere, emakumeen eragina Pirinioetako historian aztertzen da.